Lan-eskaintzen erregistroa 2022ko azaroan

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2022ko azaroan Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 1.137 izan da, azaroan baino 63 gutxiago eta joan den urteko azaroan baino 557 gutxiago.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2022ko azaroan 190 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 484 Gipuzkoan eta 463 Bizkaian. Lan-eskaintzen % 42,6 Gipuzkoako KAUetan erregistratu dira, % 40,7 Bizkaiakoetan eta % 16,7 Arabakoetan.



Aurreko hilabetearekin alderatuz, Araban % 12,4 murriztu dira eskaintzak (27 eskaintza gutxiago). Bizkaian 82 eskaintza gutxiago izan dira (% 15eko beherakada) eta, Gipuzkoan, aldiz, 46 eskaintza gehiago erregistratu dira (% 10,5eko gorakada).

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz lurralde guztietan murriztu dira eskaintzak; Araban 16 eskaintza gutxiago erregistratu dira (% 7,8ko beherakada), Bizkaian % 46,3 murriztu dira eskaintzak (400 gutxiago), eta azkenik, Gipuzkoan, % 22,6koa da beherakada (- 141 eskaintza).

• LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA

Lanbide-profilei dagokionez, zientzietako teknikarien profilerako erregistratu dira eskaintza gehien; 229 eskaintza eta, % 20,1eko pisua eskaintza guztien artean. Industriako profilak jarraitzen dio (201 eskaintza, % 17,7ko pisua). Zerbitzuen, laguntzako teknikarien eta ez kualifikatuen eskaintzek, ere, pisu nabarmena dute; 187, 170 eta 148 eskaintza erregistratu dira, hurrenez-hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu diren profilak, zuzendariak eta lehen sektorekoak izan dira, 11 eta 17 eskaintza, hurrenez hurren.

Aurreko hilabeteko datuekin alderatuz, eskaintza mota gehienetan murriztu dira eskaintzak. Gehien murriztu direnak, bai balio absolutu zein erlatiboetan, laguntzako teknikarien profilekoak izan dira (75 eskaintza gutxiago, % 30,6ko beherakada). Beste muturrean, 3 profiletan hazi dira soilik eskaintzak: zerbitzuak (+49), zuzendariak (+9) eta lehen sektorea (+7).

Urte arteko saldoari erreparatuz, profil guztietako eskaintzak murriztu dira. Gehien murriztu direnak, balio absolutuetan, zientzietako teknikarien profilekoak izan dira (151 eskaintza gutxiago, % 39,7ko beherakada); modu erlatiboan, aldiz, beherakada nabarmenena laguntzako teknikarien profileko eskaintzek jasan dute (% 43,5eko jatsiera, 131 eskaintza gutxiago).

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako lan-eskaintzen % 33,3k kontratu mugagabea eskaini dute; % 66,2k, aldi baterakoa, eta, gainontzeko % 0,5ak, merkataritzakoa. Kontratu mugagabea eskaini duten eskaintzen portzentaia altua da; 2021etik zetorren joera indartzen ari da 2022an. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 378 izan dira, aurreko hilabetean baino 7 eskaintza gutxiago (% 1,8ko beherakada). Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten 50 eskaintza gutxiago erregistratu dira: 753 eskaintza izan dira guztira. Kopuru erlatiboetan beherakada % 6,2koa izan da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintzak 2022ko azaroan 6 izan dira, aurreko hilean baino 6 gutxiago.



Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 118 gehiago izan dira (% 45,4ko hazkundea); aldi baterako kontratuen eskaintzak, aldiz, % 46,7 murriztu dira (659 eskaintza gutxiago). Eta, azkenik, merkataritzako 16 kontratu gutxiago erregistratu da (22tik 6ra,azken urtean).

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2022ko azaroan erregistratutako lan-eskaintzen % 74,6k, 848 eskaintzak, 0tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen % 12,7k (144 eskaintza) 6 eta 12 hilabete arteko esperientzia eskatzen dute. Portzentaia txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek % 3,5eko pisua dute (40 eskaintza) eta, 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen duten 5 eskaintza egon da hil honetan (eskaintza guztien % 0,4).

Hilabete arteko eboluzioari dagokionez, eskaintzak murriztu diren tarte bakarra, 0 eta 6 hilabete artekoena izan da (101 eskaintza gutxiago erregistratu dira; % 10,6ko beherakada). Gehien hazi direnak, bai balio absolutu zein erlatiboetan, 3 eta 5 urte arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (16 eskaintza gehiago, % 66,7ko gorakada.



Urte arteko eboluzioari dagokionez, esperientzia tarte guztietan murriztu dira eskaintzak 3 eta 5 urte artean izan ezik; iazko datu bera errepikatu da (16 eskaintza). Gehien jaitsi den tartea, balio absolutuetan, 0-6 hilabete arteko esperientzia eskatzen dutenena izan da 464 eskaintza gutxiago jaso baitira (% 31,5eko beherakada).

Lan-eskaintzen erregistroa 2022ko azaroan

Erregistratutako eskaintzek, batez beste, 7 hileko esperientzia eskatzen dute, aurreko hilean baino bat gutxiago.

• LANALDI MOTA

Analisiarekin jarraitu baino lehen, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintzen % 11,7k zehazten du datu hori (1.137 eskaintzetatik 133). 133 eskaintza horietatik, 110k lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 23ak, lanaldi partziala eskaini dute.



Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 16 gutxiago izan dira irailarekin alderatuz, hau da, % 12,7 jaitsi dira. Lanaldi partzialeko eskaintzak ere murriztu egin dira; 6 eskaintza gutxiago eta murrizketa erlatiboa % 20,7koa izan da.

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, eboluzioa hurrengoa da: lanaldi osoko eskaintzak 71 gutxiago izan dira (% 39,2ko beherakada), eta lanaldi partzialeko kasuan, berriz, 1 gutxiago (% 4,2ko beherakada).

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan 18 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez, aurreko hilean baino 2 eskaintza gutxiago eta aurreko urtean baino 31 gutxiago.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 77,8k ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 1.137 eskaintzetatik 269k soilik zehaztu dute.



269 eskaintza horietatik, 102k unibertsitate mailako prestakuntza eskatu dute; ikasketa maila honetako eskaintzak izan dira ugarienak. Gertutik jarraitzen die LHko ikasketa maila eskatu dutenak; 93 izan dira azaroan. Azkenik, oinarrizko eta batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude (57 eta 17 eskaintza, hurrenez hurren).

Hilabete arteko erlazioari erreparatuz, batxilergo eta LHko ikasketen eskaintzak murriztu dira; 5 eta 6 gutxiago erregistratu dira, %22,7 eta % 6,1eko beherakada, hurrenez hurren. Beste muturrean, aldiz, unibertsitateko eta derrigorrezko ikasketak eskatzen dituztenak hazi dira; 10 eta 3 eskaintza gehiago, % 21,3 eta % 3,3ko hazkundea, hurrenez-hurren.

2021eko azaroarekin alderatuta, murriztu egin dira eskaintzak ikasketa maila guztietan. Urte arteko erreferentzian, unibertsitateko ikasketen eskaintzak izan dira gehien murriztu direnak balio absolutuetan; 53 eskaintza gutxiago eta % 34,2ko beherakada. Balio erlatiboetan, beherakada handiena batxilergoko ikasketak eskatzen dituztenen artean gertatu da; -% 54,4 eta 18 eskaintza gutxiago.

- **ESKAINTZAREN JARDUERA**

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen dena administrazio publikoa da; honen pisua eskaintza guztien % 15,2koa izan da (173 eskaintza). Nabarmentzeko beste jarduera bat manufaktura industria da, eskaintzen % 13,6ko pisuarekin (155 eskaintza).

Aurreko hilari erreparatuz, balio absolutuetan, gehien jaitsi diren eskaintzak, administrazio publikokoak izan dira (85 eskaintza gutxiago, % 32,9ko beherakada); balio erlatiboetan, aldiz, beherakada nabarmena finantza jarduerek izan dute (% 38,5eko jaitsiera, 5 eskaintza gutxiago). Beste muturrean, balio absolutuetan, gehien hazi direnak hezkuntzakoak izan dira, 34 eskaintza gehiago erregistratu baitira (igoera erlatiboa % 57,6koa izan da); balio erlatiboetan, aldiz, ur hornikuntzakoak izan dira (+% 80, 4 eskaintza gehiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz, eskaintza gehienak murriztu egin dira. Bilakaera hoberena izan duten eskaintzak, balio absolutuetan, hezkuntzakoak izan dira (25 eskaintza gehiago, % 36,8ko hazkundea); balio erlatiboetan, aldiz, hazkunde handiena informazio eta komunikazioan izan da % 94,4 hazi baitira (+17 eskaintza). Bilakaera okerrena izan duten eskaintzak, bai balio absolutu zein erlatiboetan, administrazio publikokoak izan dira (219 eskaintza gutxiago eta % 55,9ko beherakada).


Eskaintzaren jarduera
Etxeak langile enplegatzaile gisa
Beste zerbitzuak
Artistikoak, jolaserakoak eta entretenimenduzkoak
Osasun jarduerak eta gizarte-zerbitzuak
Hezkuntza
Administrazio publikoa
Jarduera administratiboak
Profesionalak, zientifiko eta teknikoak
Higiezinen arloko jarduerak
Finantza eta aseguru jarduerak
Informazioa eta komunikazioa
Ostalaritza
Garraio eta biltegiratzea
Handizkako eta txikizkako merkataritza; konponketa
Eraikuntza
Ur-horniketa, handakinen kudeaketa
Argindar, gas, lurrun horniketa
Manufaktura industriak
Erauzketa industriak
Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, arrantza
0,00%
2,00%
4,00%
6,00%
8,00%
10,00%
12,00%
14,00%
16,00%